



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko urtarrilaren 10a

6. ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A :

Galderak:

- Galdera, ETA armagabetzeko prozesua dela-eta Espainiako eta Frantziako estatuek duten jarrerari buruz Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazio politikoari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (3. or.).
- Galdera, Foruzaingoak Parlamentuan gaueko txandan ematen duen babes-zerbitzua kentzeko Gobernuak darabilen asmoari buruzkoa. Sergio Sayas López jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, Davalor Salud enpresak jarduteko eta negozioa ustiatu ahal izateko baimen nahiz iturburu-kode guztiak eta jabetza intelektuala edukitzeari buruzkoa. Carlos García Adanero jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, Davalor Salud enpresaren finantzaketa dela-eta Nafarroako Gobernuak darabilen asmoari buruzkoa. Carlos García Adanero jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, ETA banda terrorista desegiteari eta atxiloketei buruzkoa. Carlos García Adanero jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, Davalor Salud enpresari mailegu berri bat emateari buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (6. or.).
- Galdera, Eusko Jaurlaritzak abenduaren 3a Euskadiren egun ofiziala izan dadin aintzat hartzeari buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (6. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak Fernando Remacha Musika Kontserbatorioaren kudeaketarako eta finantzaketarako txostena ez egiteko arrazoari buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, jakiteko zer baliabide ezarri behar diren eta zer-nolako kostua dakarren Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren epaia betetzeak, zeinaren bidez baliorik gabe utzi baitzen Nafarroako Gobernuaren erabaki bat, Del Burgo lehendakari ohiaren eskoltaren ordezkizaintza-sistema bat ezartzekoa. Patxi Leuza García jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Nafarroak Estatuari egin beharreko ekarpenaren urteko azken ordainketaren ostean Estatuarekin sortutako gatazkari buruzkoa. María Victoria Chivite Navascués andreak egin du (8. or.).
- Galdera, oinarritzko gizarte zerbitzuak finantzatzeko sistemari buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (9. or.).
- Galdera, Lekarozko enpresa-campusari buruzkoa. Virginia Alemán Arrastio andreak egin du (9. or.).

- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak ba al duen asmorik zuzemenen bat egiteko ekiditearren Euskal Autonomia Erkidegoan Euzkadiren Eguna izan dadin abenduaren 3a. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, Hitzarmen Ekonomikoa 2015-2019 bosturtekorako eguneratze aldera Estatuarekin egin beharreko negoziazioari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, maisu-maistren kidegoan sartzeko hautapen prozedura gaintitu duten izangaien zerrendei buruzkoa, hizkuntzaren eta espezialitatearen arabera sailkatuak. María Chivite Navascués andreak egin du (12. or.).
- Galdera, 2015-2019 bosturtekorako Estatuari egin beharreko ekarpena gaurkotze aldera Gobernu zentralarekiko negoziazioari buruzkoa. José Miguel Nuin Moreno jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren epaiari buruzkoa, zeinaren bidez onartu baitzen Jaime Ignacio Del Burgo jaunaren errekurtoa. Laura Pérez Ruano andreak egin du (13. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, ETA armagabetzeko prozesua dela-eta Espainiako eta Frantziako estatuek duten jarrerari buruz Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazio politikoari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, ETA armagabetzeko prozesua dela-eta Espainiako eta Frantziako estatuek duten jarrerari buruz Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazio politikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Adolfo Araiz Flamariquek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakari Uxue Barkos Berruezo andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Jada 5 urte dira ETAk iragarri zuenetik bere jarduera armatua behin betikoz amaitu dela eta prest dagoela bere egiturak desegiteko prozesu bat eta armagabetze egiaztagarri bat abiatzeko. Denbora horretan guztian, Espainiako eta Frantziako estatuek ez dute nahi izan ardura hori beraien gain hartu.

Agerikoa da ETAREN armategiak erabat armagabetzeko beharra, ahalik eta azkarren, eta modu ordenatu eta seguru bati jarraikiz, nazioarteko erakundeek –esate baterako, NBEk–, gomendatzen duten eran.

Testuinguru horretan, joan den abenduaren 16an polizia-operazio bat izan zen Luhuson

(Lapurdi), eta bertan atxilotu egin zituzten gizarte zibileko zenbait pertsona, ETA armagabetzeko prozesuan laguntzeko konpromisoa hartua zutenak.

Atxilotutakoak ezagunak dira giza eskubideen defentsaren gizarte zibilaren arloetan, eta publikoki adierazi dute beraien konpromisoa, ikusirik estatuek uko egiten diotela armagabetzeko prozesu egiaztagarri batean parte hartzeari.

Gure ustez, gizartearen gehiengoak eskatzen du egoera horri amaiera eman, armagabetze prozesua bukatu, eta behin betiko konponketari ekin dakion, eta orobat uste dugu egoera hori gehiengo sozial eta politikoaren eskaeraren aurkako norabidean doala. Halaxe erakusten dute atxiloketa horiek gertatu ondoren Iparralden izan diren erreakzio eta mobilizazio jendetsuek, zeinetan ia indar politiko guztiak agertu baitira atxiloketa horien eta estatuen jokabidearen aurka.

Horrelako egoera larri baten aurrean, gaur egun ez dakigu zein balorazio egiten duten Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak, eta, oro har, Nafarroako Gobernuak.

Hori dela-eta, parlamentari naizen honek haxe galdetzen dut:

Zer balorazio politiko egiten du Nafarroako Gobernuak Espainiako eta Frantziako gobernuak ETA armagabetzeko prozesuaren aurrean duten jarrerari buruz? Izan ere, prozesua eragozteko baliabide guztiak erabiltzera iritsi dira, are gizarte zibileko pertsonak atxilotzera ere, bi estatuek hartu nahi izan ez duten konpromisoa beraien gain hartzeagatik.

Iruñean, 2016ko abenduaren 20an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Foruzaingoak Parlamentuan gaueko txandan ematen duen babes-zerbitzua kentzeko Gobernuak darabilen asmoari buruzkoa.

SERGIO SAYAS LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Sergio Sayas López jaunak aurkeztutako galdera, Foruzaingoak Parlamentuan gaueko txandan ematen duen babes-zerbitzua kentzeko Gobernuak darabilen asmoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko Sergio Sayas López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Lehendakariatzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Foruzaingoak Parlamentuan gaueko txandan ematen duen babes-zerbitzua kentzeko asmoa al du Gobernuak?

Iruñean, 2016ko abenduaren 22an

Foru parlamentaria: Sergio Sayas López

Galdera, Davalor Salud enpresak jarduteko eta negozioa ustiatu ahal izateko baimen nahiz iturburu-kode guztiak eta jabetza intelektuala edukitzeari buruzkoa.

CARLOS GARCÍA ADANERO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos García Adanero jaunak aurkeztutako galdera, Davalor Salud enpresak jarduteko eta negozioa ustiatu ahal izateko baimen nahiz iturburu-kode guztiak eta jabetza intelektuala edukitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

García Adanero jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Garapen Ekonomikorako lehendakariorde Manu Ayerdi jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Prentsaren bidez jakin dugunez, Sodena sozietate publikoak Davalor Salud enpresari finantzababesa eman dio berriro ere, 2,2 milioi euro ematea onetsi baitu, jada 400.000 euroko ekarpena eginda. Sodenak enpresa horri emana zion milioi bat euroko partaidetza-mailegu bat.

Informazio hori ikusita, Davalor Salud enpresak ba al dauzka jarduteko eta negozioa ustiatu ahal izateko baimen nahiz iturburu-kode guztiak eta jabetza intelektuala?

Iruñean, 2016ko abenduaren 22an

Foru parlamentaria: Carlos García Adanero

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako kide Carlos

Galdera, Davalor Salud enpresaren finantzaketa dela-eta Nafarroako Gobernuak darabilen asmoari buruzkoa.

CARLOS GARCÍA ADANERO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos García Adanero jaunak aurkeztutako galdera, Davalor Salud enpresaren finantzaketa dela-eta Nafarroako Gobernuak darabilen asmoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako kide Carlos

García Adanero jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Garapen Ekonomikorako lehendakariorde Manu Ayerdik Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Prentsaren bidez jakin dugunez, Sodena sozietate publikoak Davalor Salud enpresari finantza-babesa eman dio berriro ere, 2,2 milioi euro ematea onetsi baitu, jada 400.000 euroko ekarpena eginda. Sodenak enpresa horri emana zion milioi bat euroko partaidetza-mailegu bat.

Informazio hori ikusita, Gobernuak zer asmo darabil Davalor Salud enpresaren finantzaketari dagokionez?

Iruñean, 2016ko abenduaren 22an

Foru parlamentaria: Carlos García Adanero

Galdera, ETA banda terrorista desegiteari eta atxilotetei buruzkoa.

CARLOS GARCÍA ADANERO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos García Adanero jaunak aurkeztutako galdera, ETA banda terrorista desegiteari eta atxilotetei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako kide Carlos García Adanero jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Abenduaren 16an, ETA banda terroristarekin zerikusia duten bost pertsona atxilotu zituzten Frantzian, banda horren armategi bat atzematea ahalbidetu duen operazio batean. Nafarroako Gobernuak egoki al deritza ETA banda terrorista atxilotzen eta desegiten jarraitzeari?

Iruñean, 2016ko abenduaren 22an

Foru parlamentaria: Carlos García Adanero

Galdera, Davalor Salud enpresari mailegu berri bat emateari buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Davalor Salud enpresari mailegu berri bat emateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkartearen eledun Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomikoko lehendakariorde Manu Ayerdik Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik erabaki duzu Davalor Salud enpresari Sodenaren bitartez mailegu berri bat ematea, enpresaren egoera ekonomikoa zaila dela jakin arren?

Iruñean, 2016ko abenduaren 22an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Eusko Jaurlaritzak abenduaren 3a Euskadiren egun ofiziala izan dadin aintzat hartzeari buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Eusko Jaurlaritzak abenduaren 3a Euskadiren egun ofiziala izan dadin aintzat hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Eusko Jaurlaritza aintzat hartzen ari da abenduaren 3a izan dadin Euskadiren egun ofiziala. Zein da zure jarrera?

Iruñean, 2016ko abenduaren 28an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Hezkuntza Departamentuak Fernando Remacha Musika Kontserbatorioaren kudeaketarako eta finantzaketarako txostena ez egiteko arrazoari buruzkoa.

CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuak Fernando Remacha Musika Kontserbatorioaren kudeaketarako eta finantzaketarako txostena ez egiteko arrazoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentualdeari atxikitako Carlos Gimeno Gurpegui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritako-

aren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

“Fernando Remacha” udal musika kontserbatorioa kudeatze eta finantzatze aldera Hezkuntza Departamentuak eta Tuterako Udalak sinatutako lankidetzaren hitzarmeneko hirugarren puntuan –hitzarmena 2016ko abenduaren 31ra arte egon da indarrean–, departamentuak finantzaketari, kudeaketari eta zerbitzuari buruzko azterlan bat egiteko konpromisoa hartu zuen, hitzarmenaren indarraldia bukatu baino lehen, kudeaketa-moldea hobetzeari edo finantzaketa-molde egokienari buruzko proposamenak egiteko eta aztertze.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak zer dela-eta ez du egin “Fernando Remacha” udal musika kontserbatorioa kudeatze eta finantzatze aldera Hezkuntza Departamentuak eta Tuterako Udalak sinatutako lankidetzaren hitzarmeneko hirugarren puntuan jasotzen den txostena?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 2an

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, jakiteko zer baliabide ezarri behar diren eta zer-nolako kostua dakarren Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren epaia betetzeak, zeinaren bidez baliorik gabe utzi baitzen Nafarroako Gobernuaren erabaki bat, Del Burgo lehendakari ohiaren eskoltaren ordezkizaintza-sistema bat ezartzekoa.

PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zer baliabide ezarri behar diren eta zer-nolako kostua dakarren Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren epaia betetzeak, zeinaren bidez baliorik gabe utzi baitzen Nafarroako

Gobernuaren erabaki bat, Del Burgo lehendakari ohiaren eskoltaren ordezkizaintza-sistema bat ezartzekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Leuza Garcia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lehendakartzako, Justiziako eta Barneko kontseilariak 2017ko urtarrilaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren epai baten bidez

baliorik gabe utzi ondoren Nafarroako Gobernuaren erabaki bat, Del Burgo lehendakari ohiaren eskoltaren ordezkiz kontrazaintza-sistema bat ezartzekoa, honako hau jakin nahi dugu:

Zer baliabide ezarri behar da epai hori beteazteko? Zer kostu ekarriko lieke urtero orain balio gabetutako kontrazaintza-zerbitzuak Foru erkidegoaren funtsei? Eta bizkartzain-zerbitzu berriak?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

Galdera, Nafarroak Estatuari egin beharreko ekarpenaren urteko azken ordainketaren ostean Estatuarekin sortutako gatazkari buruzkoa.

MARÍA VICTORIA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, Nafarroak Estatuari egin beharreko ekarpenaren urteko azken ordainketaren ostean Estatuarekin sortutako gatazkari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, heldu

den urtarrilaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Estatuari egin beharreko urteko ekarpenaren laugarren eta azken ordainketa egin du Nafarroak iragan abenduan; guztira, 60 milioi euro. Zenbateko hori gehitu behar zaie martxoan, ekainean eta irailean egindako beste hiru ordainketei –bakoitza, 153 milioikoa–; Nafarroak Estatuari egindako ekarpena, hortaz, 520 milioi eurokoa izan da 2016an.

Nafarroako Gobernuak azken ordainketa hori dela-eta hartutako erabakiaren ondorioz, Ogasuneko estatu idazkariak foru gobernuari egotzi dio hitzarmena “bete ez izana, aldabakarreko irizpidealdaketa” aplikatzeagatik.

Hori dela eta, hau jakin nahi dugu:

Nafarroako Gobernuak nola konpondu nahi du Estatuarekiko gatazka?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, oinarrizko gizarte zerbitzuak finantzatzeko sistemari buruzkoa.

NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkeztutako galdera, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak finantzatzeko sistemari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentutaldeari atxikitako Nuria Medina Santos andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, heldu den

urtarrilaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Zenbait udalek eta oinarrizko gizarte zerbitzuen mankomunitatek adierazi dutenaren arabera, Nafarroako Gobernuaren eta toki entitateen arteko finantzaketa-hitzarmena, hiru urtekoa baitzen, 2016ko abenduan bukatzen zen.

Egungo finantzaketa-sistema 32/2013 Foru Dekretuak arautu zuen, eta azken hiru urteotan indarrean egon eta gero ikusi da eskas gelditzen dela beharizanen arabera zerbitzu bat emateko eta bidegabekoa dela toki entitateei begira, finantzaketa horretarako erabilitako irizpideak direla eta.

Eskubide Sozialetako Departamentuak zer urrats egin ditu oinarrizko gizarte zerbitzuen egungo finantzaketa-sistema baloratzeko eta egungo gabeziak aldatu ahal izateko?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

Galdera, Lekarozko enpresa-campusari buruzkoa.

VIRGINIA ALEMÁN ARRASTIO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Virginia Alemán Arrastio andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Lekarozko enpresa-campusari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Virginia Aleman Arrastio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako

Gobernuko Garapen Ekonomikorako kontseilariak 2017ko urtarrilaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hedabideen bidez jakin dugu Nafarroako Gobernuko Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren eta Lanaren Zuzendaritza Nagusiak Lekarozko enpresa-campusaren proiektuaren hiru aurkezpen egin dituela (Miarritzen, Irunen eta Baztanen).

Nafarroako Gobernuak bultzatutako ekimen horren helburua da enpresa-campusaren espezializazioa sustatzea, Nafarroako Espezializazio Adimendunerako Estrategiak lehenetsitako sektore estrategikoetako enpresak ezarritik.

Departamentuak zer-nola ikusten ditu enpresa-campus hori eta bere etorkizuna?

Zer asmo darabil hutsik jarraitzen duen Hizkuntza-murgiltze Zentroa hartzeko eraiki zen eraikinari dagokionez?

Departamentuak zer urrats gehiago egingen du campusa bultzatzeko?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Virginia Aleman Arrastio

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak ba al duen asmorik zuzemenen bat egiteko ekiditearren Euskal Autonomia Erkidegoan Euzkadiren Eguna izan dadin abenduaren 3a.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak ba al duen asmorik zuzemenen bat egiteko ekiditearren Euskal Autonomia Erkidegoan Euzkadiren Eguna izan dadin abenduaren 3a.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuko lehendakariak ba al du asmorik zuzemenen bat egiteko ekiditearren Euskal Autonomia Erkidegoan Euzkadiren Eguna izan dadin abenduaren 3a, San Frantzisko Xabierkoaren Eguna eta Nafarroaren Eguna?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 5ean

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Hitzarmen Ekonomikoa 2015-2019 bosturtekorako eguneratze aldera Estatuarekin egin beharreko negoziazioari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Hitzarmen Ekonomikoa 2015-2019 bosturtekorako eguneratze aldera Estatuarekin egin beharreko negoziazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko eledun Adolfo Araiz Flamarique jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, 2017ko urtarrilaren 12an egin beharreko kontroleko Osoko Bilkuran izapidetzeko:

2016ko abenduaren 30ean Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak aditzera eman zuen Estatuari egin beharreko urteko ekarpenaren laugarren eta azken ordainketa egina zela; guztira, 60 milioi euro.

Zenbateko hori gehitu behar zitzairen martxoan, ekainean eta irailean egindako beste hiru ordainketei –bakoitza, 153 milioioia–; Nafarroak

Estatuari egindako ekarpena, hortaz, 520 milioi eurokoa izan da 2016an.

Aranburu kontseilariak prentsaurreko batean adierazitakoaren arabera, Nafarroak “negoziazioarekiko duen konpromiso irmoari eusten dio, eta bere gogoia erakutsi du, 2015-2019 bosturtekoaren eguneratzea azkartu dadin Estatuarekin, eta 2015eko zein 2016ko behin betiko likidazioari ekin dakion”.

Kontseilariaren ustez “ekarpenaren ezarpena behin-behinekoa izateak kalte egiten dio batez ere Nafarroari, Foru Erkidegoaren aurrekontuan duen pisu espezifikogatik”.

Estatuarekiko negoziazioa bi urte baino gehiagoko atzerapenarekin hasi da Estatuak aipatu prozesua abiatzeari uko egin diolako; horiek horrela, eta Ogasun Departamentuko teknikariek prestatutako txostenaren arabera, Nafarroa Espainiako Estatuari gehiegizko ordainketa egiten ariko litzateke, urteko 100 milioitik 250 milioira artekoa.

Horrenbestez, honako galdera hau egiten dugu:

Egoera hori ikusita, zertan da Hitzarmen Ekonomikoa 2015-2019 bosturtekorako eguneratze aldera Estatuarekin egin beharreko negoziazioa? Zein jarrera izanen du Nafarroako Gobernuak nafar herritarren eskubide ekonomikoak errespetatuko dituen itun bat lortze aldera?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, maisu-maistren kidegoan sartzeko hautapen prozedura gainditu duten izangaien zerrendei buruzkoa, hizkuntzaren eta espezialitatearen arabera sailkatuak.

MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, maisu-maistren kidegoan sartzeko hautapen prozedura gainditu duten izangaien zerrendei buruzkoa, hizkuntzaren eta espezialitatearen arabera sailkatuak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentutaldearen eledun María Chivite Navascués andre-

ak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egin du, urtarrilaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Maisu-maistren kidegoan sartzeko hautapen prozedura –400/2016 Ebazpenaren bidez deitu baitzen– gainditu duten izangaien zerrendak, hizkuntzaren eta espezialitatearen arabera sailkatuak, onetsi zituen 1934/2016 Ebazpena bertan behera uzteko eskabidea orain dela hogeita hamar egun baino gehiago sartu zen Hezkuntza Departamentuaren erregistroan, eta oraindik ere ez da horri buruzko ebazpenik eman. Gauzak horrela, zer gertatuko da aurkaratuta gelditu diren xedapen eta egintza guztiekin?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, 2015-2019 bosturtekorako Estatuari egin beharreko ekarpena gaurkotze aldera Gobernu zentralarekiko negoziatioari buruzkoa.

JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, 2015-2019 bosturtekorako Estatuari egin beharreko ekarpena gaurkotze aldera Gobernu zentralarekiko negoziatioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentariaren elkarreko eledun José Miguel Nuin Moreno jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak heldu den urtarrilaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zertan da 2015-2019 bosturtekorako Estatuari egin beharreko ekarpena gaurkotze aldera Gobernu zentralarekiko negoziatioa?

Nafarroako Gobernuak zer epe darabil gogoan negoziatio hori egiteko eta burutzeko?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Galdera, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren epaiari buruzkoa, zeinaren bidez onartu baitzen Jaime Ignacio Del Burgo jaunaren errekurtoa.

LAURA PÉREZ RUANO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Pérez Ruano andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren epaiari buruzkoa, zeinaren bidez onartu baitzen Jaime Ignacio Del Burgo jaunaren errekurtoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Laura Pérez Ruano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako

galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan hurrengo Osoko Bilkuran:

Ikusita Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren epaia, zeinaren bidez onartu baitzen Jaime Ignacio Del Burgo jaunaren errekurtoa, eskoltaren ordezkotza-sistema bat ezartzearen aurkakoa:

Nafarroako Gobernuak zer egingen du epai hori ikusita? Gogoan al darabil epaiaren aurkako kasazio-errekurtoa aurkeztea?

Nafarroako Gobernurako programa-akordioan jasotakoarekin bat, Gobernuak ba al du Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren goi karguen bateraezintasunei buruzko 19/1996 Foru Legea aldatzeko asmorik?

Nafarroako Gobernuak gogoan al darabil, epaia ikusita, Nafarroako lehendakari ohiei dago kienez gaur egun ezarritako ibilgailu ofizialen, bizkartzainen eta gainerako eskubideen araubidea aldatzea?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Laura Pérez Ruano

